Hernaniko Udala

2027 URTEAN HERNANIKO JAIETAKO PROGRAMAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA.

1. Helburua

Oinarri hauek Hernaniko eragileei dirulaguntza eta laguntza publikoak emateko prozedura orokorra arautzen dute, Hernaniko jaietako (Inauteriak, Sanjoan Jaiak, San Inazio Jaiak, Euskal Jaiak) programen garapena finantzatzeko 2027. ekitaldirako; horren kudeaketa Hernaniko Udalaren Kultura Sailari dagokio.

Oinarri hauek Udalak indarrean duen dirulaguntzak emateko araudiaren 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

Laguntza hauen helburua da Hernaniko jai ezberdinetan eragileek garatzen dituzten jarduerak diruz laguntzea. Horrela, Udalaz gain eragileek modu aktiboan parte-hartuz jai aberatsago eta programa osatuago egiteko.

Laguntzak lau helburu dituzte:

1- Inauterietako programa osatzea

2- Sanjoan Jaietako programa osatzea

3- San Inazio Jaietako programa osatzea

4- Euskal Jaietako programa osatzea

2. Aurrekontua eta programak

Deialdi honen barruan emango diren dirulaguntzetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa 62.527,50 eurokoa izango da.

Kopuru hori horrela banatuko da:

1.- Inauteriak 7.184,25 euro

2.- Sanjoan Jaiak 41.160,81 euro

3.- San Inazioak 2.100,00 euro

4.- Euskal Jaiak 9.944,31 euro

5.- Aurreikusi gabeko ekintzak 2.138,13 euro

Salbuespenak salbuespen, kantitate horiek aldatu ahal izango dira eskaeren arabera.

Hori guztia Hernaniko Udalaren 2027ko aurrekontuko honako partida honen kontura egingo da:

1 1910.481.01.338.00 2027 (7773). DIRULAG.JAIAK-ELKARTEAK

3. Onuradunak

Dirulaguntza honen onuradun izan ahal dira pertsona fisiko zein elkarteak beti ere deialdi honen lehenengo artikuluan zehaztutako helburuak lortzera bideratutako ekimenak sustatu edota interes orokorreko jarduerak egiteko bada.

Horretaz gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du, dirulaguntza eskatzeko datan, adin nagusikoa dela.

Ezingo dira dirulaguntzaren onuradunak izan Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsona edo entitateak.

Hernaniko Udala

4. Bazterketak

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratuko dira:

a) Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.

b) Direnagatik edo duten helburuagatik Kultura Sailaren helburuekin inongo loturarik ez duten jarduerak.

c) Edozein motako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere. Dirulaguntza eskaerarekin batera, eskatzaileak, zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatu beharko du.

d) Ez dira aintzat hartuko aurreko deialdietan jasotako dirulaguntza justifikazioa entregatzeke dituzten jarduera edo programei lotutako eskaerak.

e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legeria (jaiotza, arraza, sexu edo erlijio iritziagatik diskriminatzearen debekua) betetzen ez duten elkarte edo erakundeen zein pertsonen eskabideak.

f) Onuradunek, indarrean dagoen lege araudia bete beharko dute, besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Hortaz, ez zaie dirulaguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei. Udalak atzematen badu elkarte edo erakundeek sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duela, dirulaguntza berdintasun legedia betetzearen arabera baldintzatuta geratuko da. Beraz, elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria ezaren konpromiso aktiboa duela ziurtatuko du.

g) Deialdi honetatik kanpo geratuko dira edozein erlijioren barruan egiten diren ohiko jarduerak edo erlijio gertakariekin zerikusia duten jarduerak.

5. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntza emateko prozedura elkarrekiko lehiarik gabekoa izango da.

Dirulaguntzak aurreko urtean Jaietan jarduerak antolatu eta horretarako laguntza jaso duten eragileei emango zaizkie. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa deialdi honen eranskinean zehaztuko da.

Aurreikusi gabeko eskaerak Kultura Sailak aztertuko ditu, eta, aurrekontuaren eta programaren mugak kontuan hartuta, eskaeraren interesaren, egokitasunaren eta bideragarritasunaren arabera ebatziko ditu.

6. Eskabideak

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.

Eskabideak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek aurrez aurre edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki:

- Telematikoki Elkartearen izenean (edo norbanakoak ordezkapen eskaria eginez) erregistratuz:

  https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=40&hizkuntza=EU

- Aurrez aurre, HHZ – Herritarren Harrera Zerbitzuan, udaletxeko beheko solairuan. Astelehenetik ostiralera: 08:00 – 13:30 (asteartetan eta ostegunetan, 14:30-18:30 ere)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1 Dirulaguntza eskabide normalizatua, behar bezala beteta eta aitorpen guztiak sinatuta.

2 Zerga bidezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ araubidea egunean edukitzearen aitorpena.

3 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen inguruko aitorpena.

4 Dirulaguntzaren xede izango den jardueraren deskribapena eta gastu eta sarreren aurrekontu orekatua.

5 Antolatuko den jardueraren inguruko xehetasunak: eguna, ordua, ibilbidea, beharrezkoak diren baliabideak.

6 Identifikazio Fiskaleko Kodearen dokumentuaren fotokopia (I.F.K) edo eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.

7 Eskatzailearen kontu korrontearen zenbakia eta kontuaren jabe dela erakusten duen aitorpena.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

7. Akatsen zuzenketa

Eskaera-orriak edo horrekin batera aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioak akatsen bat balu edo osatu gabe baleude, hamar eguneko epea emango zaie interesatuei, egileak eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, aurkitutako akatsak zuzentzeko. Epe hori igaro ondoren akatsak zuzenduko ez balira, eskaerari uko egin diotela ulertuko da, eta ondorioz, prozedura artxibatuko da.

8. Epeak

Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da eskaerak aurkezteko epea zabalik, eta jarraian adierazitako datetan amaituko da:

- Inauteriak: 2026ko abenduak 14
- Sanjoanak: 2027ko martxoak 19
- San Inazioak: 2027ko ekainak 7
- Euskal Jaiak: 2027ko uztailak 9

Ezarritako epea nahitaez beteko da, eta ez da salbuespenik egingo.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Erabakia hartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, baina aurrez Herritarrentzako batzordeak bere irizpena emango du.

Eranskinean agertzen diren diru kopuruak eskatzaileak duen gastu muga da, beraz, ebazpenaren berri ematerakoak kopuru horiek aldatu litezke jasotako eskaeraren arabera.

Dirulaguntzaren ordainketa honela egingo da, %80 dirulaguntza ematea onartzen denean, eta, gainerako, %20 agiri hauek aurkeztu ondoren:

a) Dirulaguntza eskabide normalizatua, honekin batera doan ereduaren araberakoa.

b) Diruz lagundu den jardueren balorazioa eta memoria xehatua.

c) Sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa.

d) Fakturen zerrenda formatu editagarrian.

e) Egindako gastuen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, zerrendan jasotako hurrenkerari jarraituz eta agiri bakoitza dagokion zenbakiarekin identifikatuta. Fakturak edo horien baliokide diren agiriak aurkeztu beharko dira. Ez dira onartuko gastu-oharrak edo tiketak.

Dieta edo gastu-konpentsazio gisa egindako ordainketa guztiak banku-transferentzia bidez egin beharko dira, eta ordainketa bakoitzaren gehieneko zenbatekoa 200 eurokoa izango da. Transferentzia egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Aurkeztutako fakturek, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- Zerbitzua ematen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN)
- Zerbitzua hartzen duenaren identifikazioa.
- Zerbitzuaren gaiaren identifikazioa.
- Zerbitzua egin zeneko eguna.
- Kopurua guztira.

Emandako dirulaguntza %100ean justifikatuko da.

Dirulaguntza justifikatzeko epeak honako hauek izango dira:

- Inauteriak: 2027ko martxoak 8
- Sanjoanak: 2027ko uztailak 27
- San Inazioak: 2027ko abuztuak 31
- Euskal Jaiak: 2027ko urriak 20

Behin elkarteek/pertsonek gastuen justifikazioak aurkeztu eta hiru hilabeteko epea izango du Udalak gastu justifikazio horiek ebazteko.

10. Onuradunaren betebeharrak.

Jai Batzordean diruz lagunduko den ekintza aurkeztea, eta jaiak bukatutakoan ekintzaren balorazioa partekatzea. Jai Batzordeetako bilerata parte-hartzea jaien antolaketan eragile aktibo izateko.

Diruz lagunduko diren jarduerek Hernaniko Udalak indarrean dituen euskara eta berdintasun irizpideak betetzea.

Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

a) Diruz lagundutako jarduera adingabeei edo gazteei zuzendua denean (ikastaroak, antzezlanak, ipuin kontaketak, pailazoak...) jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.

b) Jarduera herritar orori zuzendua denean, euskaraz egitea baloratuko da.

c) Nolanahi ere, kasu guztietan betebeharra izango da:

   Idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskaraz izatea. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.*
   Ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpena, megafonia..) euskaraz izatea. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

d) Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, euskaraz idatziz (egitarauetan, adibidez, txokolatada)

Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez.

Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.

Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.

Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerraldean idatziz.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko, edo bestelako laguntzarik emateko.

11. Publizitatea

Diruz lagundutako jarduerei publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen pertsonak edo erakundeak Hernaniko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera.

12. Ebazpena

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu guztietan interesdunari ebazpenaren berri emango zaio, dirulaguntza jaso ala ez.

13. Ez betetzeak

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematearen aldeko erabakian ezarritako betebeharren bat hautsiz gero, kasua berrikusiko da eta, hala badagokio, dirulaguntza itzuliko da, dirulaguntzak emateko udal araudiaren 17. artikuluak aurreikusitako eran.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta emandako kopurua ezeztatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke horretarako arrazoiak azalduz. Edonola ere, prozeduraren izapideak egitean, interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Udal Dirulaguntza Araudiak xedatu moduan, dirua itzuli behar duten elkarteek itzulketako dirua eta haiei dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dituzte.

14. Araubidea

Deialdi honetan xedatu gabeko guztia Hernaniko Udalaren Dirulaguntzak Emateko Araudiaren arabera arautuko da, eta Dirulaguntzen inguruko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

Hernaniko Udala

Eranskina

INAUTERIAK			
NOREN IZENEAN	Eskatzailea	IFK/NA	GASTU MUGA
	URUMEA IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA	G20427571	2.474,75 €
AZERI DANTZA	ALEJOS GOIKOETXEA, JON	4X1X7X0XK	723,79 €
	HERNANIKO PILOTA SUSTATZEKO TXIRRI ELK.	G56553910	716,63 €
	CD HERNANI PALA SAILA	G20188520	659,57 €
SOKAMUTURRA BAI	IRAOLA GASCUE, JULEN	7X8X6X5XB	772,01 €
	SOCIEDAD RECRETIVA ELUR TXORI	G20121885	1.837,50 €

SANJOAN JAIAK			
NOREN IZENEAN	Eskatzailea	IFK/NA	GASTU MUGA
AKELARREA	BARRENETXEA IRASTORZA, NAIA	7X2X8X46J	1.051,40 €
AKELARRE TXIKIA	DIAZ EGAÑA, AMAIA	7X5X3X4XF	991,64 €
	AMHER ASOC. MULTICULTURAL DE HERNANI	G20832812	2.205,00 €
	AND TAXAWU ASOCIACIÓN SENEGALESA	G22829832	525,00 €
GAZTEEN AZERI DANTZA	GARMENDIA MARTINEZ, EUKENI	3X7X7X5XF	940,86 €
	PAULO TTIKIA BERTSO-ESKOLA	G20646550	2.910,13 €
BETI EGARRIAK	AMONDARIAN LUJANBIO, MIKEL	7X5X0X2XT	1.598,39 €
	UR-MIA SOLAS ELKARTEA	G20468450	879,80 €
	CLUB DE BOXEO SORABOX	G75219840	3.253,91 €
KUADRILEN BRINDISA	LUJANBIO OLANO, JUAN CARLOS	1X9X1X1XS	551,25 €
	SOCIEDAD RECRETIVA ELUR TXORI	G20121885	2.634,70 €
	HERNANIKO PILOTA SUSTATZEKO TXIRRI ELK.	G56553910	4.268,88 €
	ETXEBERRIKO LAGUN ARTEA	G20131140	2.297,31 €
	ASOC. HOGAR DEL JUBILADO GOIZ EGUZKI	G20391595	1.765,02 €
	HERNANIKO OHITURA ZAHARRAK ABESBATZA	G20507976	88,20 €
	SOCIEDAD RECREATIVA SANTA BARBARA	G20112116	4.828,95 €
SOKAMUTURRA BAI	IRAOLA GASCUE, JULEN	7X8X6X5XB	1.549,28 €
	TXANTXANGORRI ELKARTEA	G20446662	2.365,15 €
TXOSNA BATZORDEA	MATEO BORREGO, UXURI	7X0X1X3XK	3.307,50 €
	URUMEA IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA	G20427571	948,38 €
	HERNANIKO XAKE ELKARTEA	G20545646	607,75 €
	XALAPARTA ELKARTEA	G20122016	1.592,31 €

SAN INAZIO JAIAK			
NOREN IZENEAN	Eskatzailea	IFK/NA	GASTU MUGA
SAN INAZIO	ANDONI REKONDO IZAGIRRE	7X5X7X0XE	2.100,00 €

EUSKAL JAIAK			
NOREN IZENEAN	Eskatzailea	IFK/NA	GASTU MUGA
ANTZINAKO JOLASAK	IRIARTE ANSORENA, XABIER	1X9X3X0XF	1.212,75 €
	PAULO TTIKIA BERTSO-ESKOLA	G20646550	2.938,46 €
	KAXKO AUZO ELKARTEA	G20520714	2.449,76 €
	CD HERNANI PALA SAILA	G20188520	636,70 €
	HERNANIKO PILOTA SUSTATZEKO TXIRRI ELK.	G56553910	745,29 €
	SOCIEDAD RECREATIVA SANTA BARBARA	G20112116	1.852,20 €
	GOIZ EGUZKI JUBILATUEN ETXEA	G20391595	109,15 €